FUNDAZIOA

2019. URTEKO MEMORIA

FUNDAZIOA

Athletic Club Fundazioaren jarduera funtsezko lau eremutan garatzen da: Kirola eta prestakuntza, kultura, gizartea, eta, 2019an lehen aldiz, ingurumena. Ondoren, arlo horietako bakoitzean egindako lana azalduko da, zehatzago.

KIROL ETA PRESTAKUNTZA ARLOA

Fundazioaren kirol eta prestakuntza arloak lotura zuzena du Athletic Cluben kirol proiektu profesionalarekin. Helburua inguruko jokalari guztiei ahalik eta prestakuntzarik onena ematea da, beheko kategoriekin lan egiten duten klubekin lankidetza estuaren bidez.

Arlo hau Fundazioaren oinarrizko zutabeetako bat da, eta, beraz, baliabide garrantzitsuak bideratzen ditugu proiektu honetara, Bizkaiko oinarrizko futbola Athletic Cluben eta Fundazioaren beraren nortasunaren oinarrizko zutabea dela ulertzen baitugu.

Proiektuaren helburu nagusiak honakoak dira:

1. Entrenatzaile eta prestatzaileen maila lantzea.
2. Bizkaiko futbolari ahalik eta giza baliabide, material, metodologia eta bestelako baliabide onenak ematea.
3. Jokalarien motrizitate eta kirol maila hobetzea.
4. Irizpideak bateratzea, Bizkaiko ikastetxe eta futbol klubetara zabalduz.
5. Athletic Bizkaiko gizarte osoarengana gerturatzea eta identifikatzea, gaurko eta biharko harreman-oinarriak ezarriz.

Helburu horiek lortzeko, Athletic Club Fundazioa Bizkaiko 140 futbol klub baino gehiagorekin ari da elkarlanean, bai kirolari dagokionez, baita medikuntzari dagokionez ere. Hiru lan-ildo nagusiak honakoak dira:

1. TEKNIFIKAZIO EREMUAK

Atal honetan, helburu nagusia da Athletic Club Fundazioak parte hartzen duen klubetako entrenatzaileei prestakuntza ematea. Prestatzaileek metodologia txertatzen dute eta dagokion klubeko teknikariei aholkularitza ematen diete. Teknifikazioari dagokionez, sei eremu geografiko bereizten dira:

- Bilbo
- Eskumaldea – Txorierri - Mungia
- Ezkerraldea – Enkarterriak.
- Durangaldea - Gernikaldea

- Ibaizabal-Aiarako bailara
- Lea Artibai

2019an, astean egun batean edo bitan 45 klubetan egon dira, eta Bizkaiko beste futbol klub batzuetan modu puntualagoan, hala eskatu dutenean. Prestatzaile hauek joaten diren klubak hastapenekoak dira, kimu eta benjamin mailetakoak. Helburu nagusia izan da lan-ildo metodologiko bakarra sustatu eta dinamizatzea, betiere, hobekuntza orokor bat lortzeko. Beharrezko lan mesozikloak eskaini dira (burutu beharreko lanak eta edukiak ezartzen diren kirol-plangintzak), Lezaman kategoria horietan aplikatzen den metodologia lantzeko. Gainera, prestatzaileek kaptazio lanak egiten dituzte jokalariekin, Athletic Cluben sar daitezkeen baloratzeko.

2. PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA

Prestakuntza eremua proiektuaren pieza garrantzitsua da. Etengabeko prestakuntza saioak ematen dira Federazioarekin, eta noizean behin beste ikastaro batzuk, aplikazio zuzeneko gaien inguruan. Urteko ikastaro bat egiten da adierazitako sei eremuetako bakoitzean. Era berean, metodologia ahalik eta gehien egokituko da kluben beharrizanen arabera, kategoriak bereiziz. Teknikarien leku-aldatzeak ahal beste murrizteko, zonalde bakoitzean prestakuntza gela bat dago; horrela, bertaratzeko erraztasunak ematen dira. Aurreikuspena da ikastaroak ugarituz joatea; izan ere, Bizkaiko Futbol Federazioarekiko aliantza baliagarria izango da ikastaroen zabalkunderako eta ikastaroen homologaziorako.

2019an zehar landutako gaiak askotarikoak izan dira: aspektu tekniko-taktikoak, taldeen zuzendaritza, inguruarekiko harremana, irizpide metodologikoak, eta abar. Urteko iraupena dute, eta ikasgelan zein zelaian aplikatzen dira. Gai nagusiak honakoak dira: Beroketa, lehen sorospenak, egitekoen diseinua, psikomotrizitatea, jokoarauak eta atezainen entrenamendua.

3. ZENTRO MEDIKOAK

Durango, Markina, Leioa, Bilbo, Basauri eta Portugaleten kokatuta daude. Jarraipen medikoa eta fisiologikoa eta arreta zerbitzua eskaintzen zaie hitzartutako klubetako jokalariei, baita hitzarmen bidez eratutako taldeei ere. Gainera, prebentzio, ohitura osasungarri eta abarren inguruko parte-hartze proiektuak sortzen dira, lana prestakuntza eta prebentzio eremura bideratuz, ez soilik asistentzialera.

BESTE KIROL PROIEKTU BATZUK

Prestakuntza eremuaz harago, Athletic Club Fundazioak hainbat kirol proiektu garatzen ditu. Horien bidez, futbolaren jolas aspektua lantzen da, batez ere. Futbola jolas moduan ulertzen da, garapen pertsonalerako eta beste pertsonekin loturak estutzeko tresna gisa:

Hondartza futbola

Prestakuntza eremuaz harago, Athletic Club Fundazioak hainbat kirol proiektu garatzen ditu. Horien bidez,

futbolaren jolas aspektua lantzen da, batez ere. Futbola jolas moduan ulertzen da, garapen pertsonalerako eta beste pertsonekin loturak estutzeko tresna gisa.

Udako eta Gabonetako campusa

6 eta 14 urte bitarteko haurrei eskainia. Epe zehatz horietan, jolas eta kirol jarduerak antolatzen dira Lezamako instalazioetan. Ondo pasatu, euskara eta ingeles ezagutzak hobetu, futbolaren mundura gerturatu eta Athleticen filosofian barneratzeko aukera eskaintzen da..

Lezama bekak

Lezaman aritutako futbolariek ahalegin berezia egiten dute ikasketak eta kirola uztartzeko. Fundazioak ematen dituen beken bidez, ahalegin hori saritu nahi dugu. 2019an honako jokalariak izan dira onuradunak: Irune Maza, Ander Egiluz eta Nerea Kortabitarte. Fundazioak Boise State University (EEUU), Euskal Herriko Unibertsitatea eta Begoñako Andramari Irakasle Eskola zentroetako ordainduko dizkie ikasketak, hurrenez hurren..

Herriz Herri

Athletic Herriz-Herri proiektuaren barruan, jarduera ludikoak egiten dira herriz herri, Bizkaiko herrietan zehar, urte osoan zehar. Partida egunetan San Mameseko zabalgunean ere egin ziren, eta 2019ko Gabonetako Haur Parkean egindakoa nabarmendu behar da; izan ere, hori izan zen jarduerarik bisitatuenetako bat.

GIZARTE ARLOA

Gizarte eremuan, bazterkeria arriskuan dauden kolektiboen bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten duten proiektuetan parte hartzen du Athletic Club Fundazioak. Horretarako, Athletic Clubaren dimentsio soziala eta futbola erabiltzen dira tresna nagusi gisa.

2019an 22 proiektu garatu dira. Honakoak izan dira, ordena alfabetikoaren arabera, eta xedearen inguruko azalpen labur bat gehituta:

ADSIS: Kartzelan (bigarren edo hirugarren graduan), baldintzapeko askatasunean edota askatasun egoeran baina oraindik ere gizarteratze-prozesuan dauden pertsonei zuzendua.

AHALEGINA: Adimen-desgaitasuna duten adingabeei zuzendua.

BAKUVA: Gizarte-bazterkeria arriskuan dauden Bilbo Zaharreko adingabeei zuzendua.

KAMISETA AMANTALAK: Athletic Cluben kamisetekin egindako amantal zuri-gorriak. Basurtu eta Gurutzetako paziente adingabeei ematen zaizkie.

BIZITEGI: Bilbo inguruko etxerik gabeko pertsonei zuzendua.

BIZKAIA KOOPERA VILLAGOL: Limako Villa El Salvador (Peru) eremuko emakumeei zuzendua.

BIZGARRI: Bakarrik etorritako adingabe atzerritarrei zuzendua.

ERASMUS SPORT: Gizarte proiektuetarako metodologia arloko prestakuntza.

FUTBOLA BURUAN: Gaixotasun mentalen bat duten pertsonei zuzendua, Osakidetzako Osasun Mentalaren Sarearen barruan.

FUTBOLA – GARUN-PARALISIA: Garun-paralisia duten edota garuneko kalteren bat jasan duten pertsonei zuzendua.

PASABIDE FUTBOLA: Ospitalean bertan antolatutako eta Gurutzeta eta Basurtun dauden paziente adingabeei zuzendutako futbol partidak.

GENUINE: Athletic Cluben lehen mailako hirugarren taldea (mutilen eta nesken taldeekin batera), adimen-desgaitasuna duten pertsonaz osatua.

GIZAKIA: Adikzioak dituzten pertsonei zuzendua.

GOIZTIRI: Etxerik ez duten Ezkerraldeko pertsonei zuzendua.

PEDIATRIA: Helburu nagusia txikienei zuzendutako tratamenduen humanizazioan laguntzea da.

MUGIKORTASUN MURRIZTUA: Mugikortasun murriztua duten pertsonak, San Mameseko partida egunetan.

OSASUN MENTALA: Buruko gaixotasuna duten pertsonei zuzendua.

SAVE THE CHILDREN: Babesgabetasun egoeran dauden adingabeei zuzendua.

SERSO HONDURAS: Hondurasko Jutiapa herriko adingabeei zuzendua.

UTOPÍA: Babesgabetasun egoeran dauden emakume helduei zuzendua.

WALKING FOOTBALL: 50 urtetik gorakoei zuzendua.

ZABALOETXE: Bakarrik etorritako adingabe atzerritarrei zuzendua.

Guztira, astean 46 entrenamendu-saio egiten dira, batez beste. Entrenamendu horiek zuzentzen zaizkien kolektibo gehienentzat, kirola egitea funtsezkoa da. Hainbat onura ematen dizkie, osasunaz harago. Sozializazio eta ahalduntze prozesuan laguntzen die, aisialdirako aukerak emanez.

Bestalde, 2019ko abenduan, Fundazioak Bizkaiko Gurutze Gorriaren jostailu dohaintzan lagundu zuen. Athletic Club - FC Barcelona nesken partidarako sarrera bat eman zuen, jostailu bat entregatzearen truke.

KULTUR ARLOA

Kultura eta heziketa eskutik doaz, gizartearen garapenarekin batera. Errealitatearen inguruko ikuspegi kritikoa eta analitikoa sustatu behar ditugu, errealitate hori bera hobetzeko.

Kultura eta heziketa eskutik doaz, gizartearen garapenarekin batera. Errealitatearen inguruko ikuspegi kritikoa eta analitikoa sustatu behar ditugu, errealitate hori bera hobetzeko. 2019an hainbat kultur jarduera antolatu ditugu, futbola egiteko beste modu bat posible dela aldarrikatzeko. Helburu nagusia futbola, kultura eta heziketaren arteko loturak estutzea da.

THINKING FOOTBALL FILM FESTIVAL 2019

Jaialdiaren zazpigarren edizioa BBK Salan antolatu zen, martxoaren 18tik 22ra. Hainbat lurraldetan sortutako luzemetraiak proiektatu ziren, hala nola Estatu Batuak, Iran, Erresuma Batua, Txina, Suedia eta Errumania, eta egun bakoitzean filmetako protagonista edo zuzendariak izan ziren. Pelikula bakoitzaren osteko solasaldietan parte hartu zuten, klubeko gonbidatuekin batera, hala nola Óscar de Marcos, Carlos Gurpegui, Erika Vázquez edo Marta Unzué.

Michael eta Jeff Zimbalist anaiek zuzendutako *Nossa Chape* filmak irabazi zuen Ikusleen Saria 2019ko Thinking Football Film Festival jaialdiaren barruan.

LETRAK ETA FUTBOLA 2019

Athletic Club Fundazioak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, Letrak eta Futbola jaialdiaren X. edizioa antolatu zuen azaroaren 11tik 15era bitartean. Gonbidatuen artean, honakoak aipatu behar ditugu: Ferrán Soriano, José Roberto Torero, Juan Pablo Villalobos, Miqui Otero, Aritz Gorrotxategi, Martín Etxeberria, Jon Kortazar, Carlos Ranedo, Laura Mintegi, Santiago Segurola eta Jon Rivas.

Futbolaren munduko pertsona garrantzitsu, pentsalari eta idazle hauen arteko topaketak San Mamesen egin ziren, eta jende asko bertaratu zen.

Bestalde, jaialdiaren X. edizioa dela eta, Fundazioak bi argitalpen berezi editatu zituen. Gure lehen

taldeetako bi futbolarik idatziak izan ziren: *Togo*, Óscar de Marcosena, eta Bizitza eskukadaka, Ainhoa Tirapurena. Athletic Club Fundazioak *Togo* eta *Bizitza eskukadaka* liburuen 13.000 ale editatu zituen, eta ikastetxe, hitzartutako klub eta liburu-denden artean banatu zituen. Eskaera zehatzei ere erantzun zitzaien. Harrera bikaina izan zuten biek, eta *Togo* 2019ko liburuetako bat izateko izendatu du Panenka aldizkariak.

fATHLETIC IRAKURKETA KLUBA

Letrak eta Futbola jaialdiaren X. edizioak iraun bitartean, Athletic Club Fundazioak lau jardunaldi berezi antolatu zituen Irakurketa Klubaren barruan. Irakurketa sustatzeko jarduerak dira horiek, ezagutza eta ikasketarako baliabide garrantzia dela uste da eta.

Topaketa horietako lehenengoan, Óscar de Marcosek *Togo*ri buruz hitz egin zuen bere nobela biografikoari buruz, 40 irakurlerekin. Ostean, Liga eta Kopako txapeldun izandako Athleticen txanda izan zen. Gabarrako lehoiak Alfonso del Río idazlearen *La ciudad de la lluvia* liburuari buruz aritu ziren solasean, Juanjo Bañosen gidaritzapean. Mikel San José Jose Roberto Torerorekin aritu zen hizketan, *Una historia de fútbol* liburuaren inguruan. Azkenik, Ainhoa Tirapu eta *Bizitza eskukadaka* liburua izan genituen protagonista, eta saio horrek eman zion amaiera Letrak eta Futbola ekimenaren X. edizioari.

Era berean, urtean zehar hainbat irakurketa saio izan genituen, lehen taldeetako futbolariekin.

BERTSODERBIAK ETA EUSKARA

2019an ere Bertsoderbiak egin dira, Athletic Club eta Real Sociedad taldeen arteko partidekin bat etorriz.

Aipatu behar da, gainera, euskara sustatzeko ekintzekin jarraitu dugula. Kasu honetan, Ibilaldia eta Euskaldunen Topagunea elkartearekin akordioak egin dira.

Era berean, aipatu behar da Fundazioak Hizkuntza Kudeaketaren Kalitate arloko ziurtagiria lortu duela. Eusko Jaurlaritzak ematen du ziurtagiri hori, euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren normalkuntza-prozesuan maila jakin batera iristeagatik.

INGURUMENA
ARLOA

Athletic Club Fundazioak lan-ildo berri bati ekin dio 2019an, ingurumen eta iraunkortasun proiektuetan zentratua. Helburua ingurumenaren defentsan laguntzea eta Athletic Club erakundea % 100 iraunkor bihurtzea da. Lan-ildo berri hau estrategikoa da etorkizunera begira.

Atal honen barruan burututako proiektuen artean, honakoak aipatu behar ditugu, bereziki:

CO2 ISURPENAK KONPENTSATZEA

Athletic Club Fundazioak konpromisoa hartu zuen talde guztien leku-aldatzeen ondorioz sortzen diren CO2 isurpenak konpentsatzen saiatzeko. Horretarako, 2019ko azarotik aurrera bertako 2.100 zuhaitz landatuko dira Urdaibain, Lurgaia Fundazioarekin batera.

ZERO PLASTIKO URDAIBAI

Klubeko ordezkari batzuk, Aitor Elizegi buru zela, boluntarioen, langileen eta Genuine taldeko kideen laguntzaz, Urdaibaiko itsasertzean aritu ziren plastikoak biltzen, jai-giroko egun batean. 2.500 kolaboratzaile eta 300 urpekari baino gehiago izan ziren guztira.

% 100 PROIEKTU IRAUNKORRA

Fundazioak Athletic Club erakundearekin lan egiten du, kluba % 100 iraunkorra izateko helburuarekin. Egiteko hori burutzeko, San Mamesen hondakin gutxiago sortzeko (eta birziklatzeko), karbono arrastoa konpentsatzeko, energia berriztagarrien erabilera sustatzeko eta energia gastua kontrolatzeko, ura modu iraunkorrean erabiltzeko eta zaleak kontzientziatzeko ekintza eta proiektuak jartzen ari dira martxan.

ATHLETIC CLUB

BILBAO

FUNDAZIOA

athleticclubfundazioa.eus